

ARTURO, KANGURU TXIKIA



Testuak: ANA M^a GARCÍA DE MOTILOA GÁMIZ

Irudiak: RAQUEL GONZALO GARCÍA DE MOTILOA

Diseinu eta kolorea: MAIALEN GONZALO GARCÍA DE MOTILOA

Arturo kanguru txikia oso bihurria eta alaia zen.
Beti ibiltzen zen saltoka.





Baina, azken boladan triste zegoen.
Ez zuen bere lagunekin jolastu nahi,
eta batzuetan negar egiten zuen.

Egun batean, eskolan Flora andereñoak galdetu zion:

A




B

C

ama

$$\begin{array}{r} 2 \\ + 2 \\ \hline 4 \end{array}$$

-Zer gertatzen zaizu, Arturo?




-Ama ospitalean dago Daniel anaia jaio baita.
Baina, han geratu behar izan du eta ezin dut ikusi.

Florak Arturori burua gozo-gozo
ukitu zion eta beste animaliatxoei
begiratzuz esan zuen:


$$\begin{array}{r} 2 \\ + 2 \\ \hline 4 \end{array}$$




-Adi entzun kontatuko
dizuedan istorioa.



Garaia baino lehenago jaio
nintzen, oraindik berde daudela,
zuhaitzetik erortzen diren frutak bezala.




Heltzen bukatzeko
beroa behar dute.
Guri gauza bera
gerta dakiguke.




Hau gertatzean, animalien ospitalean KANGURUGAILUEN barruan geratzen gara.
Gizakiek INKUBAGAILU deitzen diete.

-Eta ... zer dira kangurugailuak? -galdetu zuen jakin-minez Arturok.



-Kanguru-emeak dira -oso bereziak-, jaiotzean urre-kolorea dutenak. DORA izena jartzen diote eta haien poltsa kristalezkoa da. Handiak egiten direnean, haurrak poltsa barruan zaintzen dituzte ospitalean.





Animaliatxoak haien barruan oso gustura daude beroarekin... "heldu" arte. Hau da, handixeagoak izan arte.


Amaren bularra hartzeko baino ez dira ateratzen eta gurasoen larrua, begirada, ahotsa eta usaina sentitzeko.



Batzuetan, animaliatxoek biberoia hartzen dute.



Badira beste animaliatxo batzuk jaiotzean gaixotzen direnak, eta egun batzuetan, sehasketan edo ospitaleko kangurugailuetan, JAIIOBERRIEN UNITATEA izeneko leku batean, egon behar dutenak. Medikuek, erizainek eta erizaintzako laguntzaileek sendatzen laguntzen diete.





Arturo poz-pozik ipini zen
Flora andereñoak kontatutako
istorioarekin. Eztiaren zuhaitzaren
marraskia Daniel anaiarentzat
egitea pentsatu zuen.

Egun batzuk igaro ondoren, Arturoren
gurasoak ospitaletik kanguru txikiarekin
irten ziren, amak poltsa barruan
zeramalarik.



Etxean zeudela, Arturok kontu handiz Daniel
anaia hartu ahal izan zuen. Biok elkarri begiratu
eta haien masailak elkartu zituzten...
LARRUAZAL LARRUAZALAREKIN.



Umea garaia baino lehen jaiotzen denean, bere neba-arreba txikiei kostatzen zaie
ulertzea zergatik geratu behar duen ospitalean.
Ipuin honek egoera berezi hauek ulertzen **lagundu** nahi die istorioen zehar,
zeinetan umeek euren buruaren isla ikus dezaketen.

Testuak

Ana M^a García de Motiloa Gámiz

Irudiak

Raquel Gonzalo García de Motiloa

Diseinu eta kolorea

Maialen Gonzalo García de Motiloa

Itzulpena

Rafa Arriola San Sebastián

Dokumentazioa

Carmen Olalde Arana

Arabako Unibertsitate
Ospitaleko Jaioberrien Unitatea

J.I.E.: VI 40 – 13

